

NIRE ERREFERENTZIA FEMINISMOAN

Kaixo Jana!

Zer moduz dago ama? Espero dut ondo egotea, ondo zaindu, eta eman muxu bat nire partez. Badakizun bezala, gutxi falta zaizu 15 urte betetzeko, eta tamalez, ezingo naiz egon zuekin egun horretan, Frantzian gauzak desberdinak dira, eta ez dut lortu hainbeste diru hegazkin bat hartzeko.

Beno, kontatu nahi nizuna, txikitako lagun batekin hitz egin dut, eta zu baino urte bat helduagoa den seme bat dauka, ezkontzeko ordua iritsi dela erabaki dut. Aberatsak ez izan arren, diru nahikoa daukate zu mantentzeko eta familia bat osatzeko elkarrekin. Nire lagunak, Nabilek, enpresa bat dauka Khartumen (Sudan), bere semeak hor egingo du lan eskola bukatzen duenean, egia esan lan ona da.

Malik joango da zu ezagutzera ostiralean, bere gurasoekin joango da, eta ezkontzari -buruz hitz egingo duzue, ez dago presarik, baina zerbait adosten hasi, ni hilabete batean iritsiko naiz, eta lagunduko dizuet.

Zorte ona izan maitea, handitzen ari zara, eta oso harro nago zutaz. zaindu ama eta anaia ondo. Ikusiko duzu, ama garaiz hobetuko da, eta etxetik joan ahalko zara zure senarrarekin.

Musu handi bat, Aita

Kaixo Aita!

Ama hobeto dago, medikamendu berriak errezetatu dizkio medikuak, erosi ditut, baina oso justo gabilta diruarekin. Masud ondo dago baina, estresatuta azterketekin, baina ondo, bere kasa, beti bezala. Dena berdin-berdin jarraitzen du, baina zure falta asko sumatzen dugu amak eta biok, Masud ia ez da gogoratzen zutaz, esaten du argazkiren bat bidaltzeko.

Irrikatan nago 15 urte betetzeko, emakume bat egiten ari naiz, eta badakit emakume bezala ezkontzea tokatzen zaidala, segur aski oso ondo eramango naizela Malikekin.

Bakarrik, zalantza bat, Khatanera joan beharko naiz bizitzera berarekin edo bera hona etorriko da, lehenengo aukera dela suposatzen dut, baina bada ez bada

Bueno aita, joan beharra daukat, ama deika ari da, eta afaria prestatu behar dut oraindik, hurrengo eskutizera arte!

Musu handi bat, Jana

Bai, hori zen nire etorkizuna, beste 37.000(eguneko) neskena bezalakoa, ezkontzea 15 urterekin, eskolara joan gabe, nobioak izan gabe ezkontzara garbi heldu behar nintzen, hau da, inorekin harreman sexualik izan gabe.

Astero bezala, aitaren eskutitza heldu zen astelehenean, Frantziatik zetorren, nire aitak lan egiten zuen lekutik. Oso eskertuta nengoen nire aitarekin, nahiz eta arazo larriak izan ekonomikoak, familia aurrera eramatea jakin zuen egoera guztietan. Oraingoan, krisitik ateratzeko, beste kontinente batera joan izan behar zuen lanera. Duela bi urte joan zen, eta ez dut berriro ikusi, irabazten duen ia diru guztia guri bidaltzen digu, amaren medikuarentzako eta Masuden ikastolarako.

Beti nahi izan dut ikastolara joan, ikasi, lagunak egin Mundua handiegia da lau paretan artean geratzeko. Ez dut bidezkoa ikusten ni etxean geratzea ama laguntzen, eta Masud ikastolara joatea, bakarrik mutila delako. Nire anaia maite dut, baina batzuetan rola aldatzea gustatuko litzaidake.

Txikitan, nire anaiaren liburuak hartzen nituen ezkutuan, irakurtzen irakatsi zidaten gurasoek, eta horregatik nire anaiaren liburuak hartzen nituen, eta teoria irakurtzen eta ikasten hasi nintzen, gero, ama gaixotu zen, eta bera zaindu izan behar nuen, liburuak alde batera utziz.

Nire urtebetetzea heldu zen, oraindik bi egun falta ziren Malik ezagutzeko, eta onartu beharra daukat urduri nengoela, nire senarra izango zen, eta berarekin bizi beharko nintzen . Ama eta anaiarekin nengonean tarta jaten, norbaitek atea jo zuen, bizilagun bat izango zela suposatu nuen, behar bada zerbait eskatzera edo amaren egoera jakiteko, baina atea ireki nuenean, nire urtebetetzeko oparirik onena aurkitu nuen, Aita zen, eta loreak zituen eskuetan.

-Aita!-ohikatu nuen besarkada bat ematen nion bitartean.

-Zorionak maitia!-esan zidan kopetan musu ematen zidan bitartean.

Ondoren, loreak niri eman eta egongelara pasatu zen ama eta anaia agurtzera. Aitaren atzean, neska bat sartu zen, nire adinekoa edo urte bat gutxiagokoa zen. Ile horia eta begi urdinak zituen, eta nire harridurarako, gure hizkuntza hitz egiten zekien, antza denez, aitak erakutsi zion.

-Aita, nor da neska hau?-galdetu nion nik.

-Bera Juliette da, Frantsesa da, eta etxerik gabe geratu zen. Etxera bueltatzen ari nintzenean egun batean, aurkitu nuen, etxera igõ eta dutxa bat hartzea esan nion eta janaria eman nion, ondo eramaten ginenez, adoptatzea erabaki nuen.

-Kaixo, zu Jana zara ezta? zure aitak asko hitz egin dit zutaz. Ni Juliette naiz, bueno hori ja badakizu, 14 urte ditut, eta nire gurasoak ni gabe joan ziren Alemaniara, horregatik bakarrik geratu nintzen.

-Plazer bat da Julie, horrela deitzen usten baldin badidazu noski, orain nire ahizpa bezala izango zara!

-Noski baietz! Gainera, Julie gehiago gustatzen zait.-erantzun zidan Juliettek irribarre handi batekin.

Julie eta nik lagunak egin ginen momentuan, eta nire logelara joan ginen hitz egitera hobeto ezagutzeko, berak bere bizitza Frantzian kontatu zidan, ikastola, lagunak, gustuko zuen

mutila, musu eman zionean... Nik, aldiz, nire konpromisoari buruz kontatu nion, bera harrituta geratu zen. Dena kontatu nion, nire gogoak ikasteko, unibertsitatera joateko...

Juliek, ezer ulertu gabe, esan zidan:

-Zergatik ez diozu esaten zure aitari ikasi nahi duzula eta ez duzula ezkondu nahi oraindik?

-Esaten saiatu naiz, baina beti esaten dit emakumeak etxean geratu behar garela, etxeko gauzak egiten, eta mutilak lanera joan behar direla

-Baina hori ez da bidezkoa, nahiz mutilak nahiz neskek aukera izan behar lukete ikastolara joateko, eta ez ezkontzeko 15 urterekin.-Esan zuen Juliek, bere burutaz ziur.

-Frantzian horrela izango da, baina hemen ez, hemengo kultura horrela da, herri honetako emakumeak denek berdina egin dute.-Errepikatu nuen nik

-Hori ez da horrela, egun batean ikastolan, Afrikako emakumeei buruzko hitzaldi bat izan genuen, eta kontatu ziguten gizartearen aurka manifestatu diren emakume asko daudela, zuk hori egin dezakezu, zure aitaren aurka manifestatu, edo akordio batera ailegatu zaitezketekete .

-Zuk oso erraza ikusten duzu, baina ez da hain erraza izango

-Horrek esan nahi du saiatuko zarela?-begiratu zidan, begirada distiratsu batekin.

-Bueno, zuk esan duzu, saiatuko gara.-esan nuen amore eman ez.

-Baiiiiiiiii!!!!!!-Ohiukatu zuen Juliek

Hurrengo egunean aitarekin hitz egin nuen, eta nire ideiak kontatu nizkion, esan nion ez nuela ezkondu nahi, eta ikasi nahi nuela. Askok haserretu zen, baina ez nintzen amore emango, nire ametsa ikastea zen, eta abokatu famatu batean bihurtzea.

Juliek emakume ahaldunduen istorioak kontatu zizkidan, eta horiek irudizat hartuta nire gurasoei aurre egin nien. Nire ama ados zegoen, baina nire aitak iritzi berdinarekin jarraitzen zuen. Oso argi esan nion, ostiralean ez nuela Malik ezagutuko eta esateko ez etortzeko.

Guda txiki hori irabazi nuen, baina oraindik asko geratzen zitzaidan, nire aita ez zen batere erraza, eta orduan, ideia on bat iruditu zitzaidan, auzoko neska guztiekin geratu ginen plazan, eta inork ez zuen ezkondu nahi, orduan plan bat egin genuen, gure gurasoen aurka errebelatzeko, eta gure eskubideengatik borrokatzeko.

Egun bat zehaztu genuen, eta egun horretan pankartekin atera ginen kaleetara, ez genuela ezkondu nahi esanez, ez, esanez ez, oihukatzen . Neska guzti horiek ni hartu ninduten erreferentziatzat, baina nire erreferentzia Juliette zen, Juliek erakutsi zidan feminismoari buruz dakidan guztia, Juliek erakutsi zidan isilik ez geratzera, Juliek erakutsi zidan gizonak ez direla gure jabeak...

Denak bat ginen momentu horretan, urtean 15 miloi neska ezkontzen ziren, eta guk ez genuen zenbaki horretan egon nahi, ezta guk ezta edozein neska gaztea behartuta dagoela eskontzera, guk unibertsitatera joan nahi genuen, edo munduari bira eman, edo ilargira joan nahiko bagenu.

Azkenean, lortu genuen, eskola handitu zuten, eta orain eskola mistoa da, denontzat. Herrian geroz eta neska gutxiago ezkontzen dira, eta geroz eta gehiago ateratzen dira herritik ikastera joateko. Nire kasuan, Juliek 18 urte bete zituenean Frantziara joan ginen elkarrekin, nik abokatua izaten lortu nuen, eta Juliek irakaslea da.

Orain, begirada atzeraka botatzen dut, eta konturatzen naiz bera gabe ez nukeela hau guztia lortzeko gai izan. Guztiok behar dugu erreferentzia moduan hartzeko pertsona bat gure bizitzan, nire kasuan Julie izan zen, eta herriko nesken kasuan ni izan nintzen. Ahotik ahora pasatzen da feminismoa, amatik alabeetara, lagunetik lagunetara... inportanteena da pasatzea, eta munduko emakume guztiak ohartzea libreak direla, eta ez direla inoren jabetza ; ez daudela behartuta nahi ez duten nahi ezer egitera...

AMAIERA

